

2013ko azaroaren 15a, Alkoholik gabeko Munduko Eguna


“Mozkortu al zara gutxienez behin azken hilean?” Gazteen % 48k baietz erantzun dute.

Alkoholik gabeko Munduko eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAEko gazteen alkoholaren kontsumoari buruzko datuak plazaratu nahi ditu.

2012an ia 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek aitortu dute inkestaren aurreko hilean mozkortu egin zirela (% 48).

Mutilek neskek baino neurri handiagoan aitortu dute mozkortu zirela (% 54 eta % 41, hurrenez hurren).

20 eta 24 urte bitarteko gazteak dira mozkortu zirela gehien aipatu dutenak (% 54); 20 urtetik azpikoen artean eta 25 urtetik gorakoen artean, aldiz, portzentajea % 45koa da.




Datuok gure kultura baino ez dute isladatzen: gure artean jaia eta ospakizunak beti datoz alkoholaren kontsumoari lotuta, eta tabernak lagunekin elkartzeko erreferentzia-tokiak dira.

Bestalde, ez badiegu noizbehinkako mozkorrei erreparatzen, baizik eta alkoholaren gehiegizko kontsumoari eta arrisku-kontsumoari, ikus daiteke zifrak nabarmen murrizten direla. Osasun eta Kontsumo saileko Drogomenpekotasunen Euskal Behatokiak emandako datuen arabera, 2012an asteburuetan alkoholaren gehiegizko edo arriskuko kontsumoa (edandako kantitatea kontuan hartuta) egiten dira 15 eta 29 urte bitarteko gazteak % 24 dira.

Berriro ere, alkoholaren gehiegizko kontsumo hori zabalduago dago gizon gazteen artean (% 33), emakume gazteen artean baino (% 16).

Dena dela, alkoholaren asteburuetako gehiegizko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa dezente jaitsi dira azken urteotan: 2004an % 36koa zen eta 2012ean aipatutako % 24koa.



Datuok [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, Osasuna atalean, hain zuzen ere.

Jarraian, ez alkoholaren kontsumoa, baizik eta lotuta ekar dezakeen arrisku-jokaera bat aipatuko dugu. Gazteen Euskal Behatokiaren datuon arabera, 2012an hamar gaztetik batek (% 9k) aitortu du azken hilean kotxea gidatu duela edo bidaiari moduan joan dela kotxeko gidariak baimendutako alkohol-tasa baino handiagoa zeukalarik.

Arrisku-jokabide hori, gazte gutxik betetzen badute ere, neskeen bikoitza da mutilen artean (% 6 eta % 12, hurrenez hurren). Eta lehen bezala, zabaldago dago 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (% 11), gazteenen (% 7) edota 25 eta 29 urte bitartekoen (% 9) artean baino.

Datuok Gazteen Euskal Behatokiak 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteei eginiko inkestaren emaitzak dira.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

